



## V AKTA

**Gaia: Idazkari/Administrazio-laguntzaile lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Elkarrizketa pertsonalen eta merituen balorazioa: behin-behineko emaitzak.**

**Prozesua:**

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Idazkari/Administrazio-laguntzaile bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, elkarrizketa pertsonaletan hautagaiak lanpostua betetzeko dituzten gaitasunak eta trebetasunak ebaluatuko dira. Gehienez ere 40 puntuko kalifikazioa lortu ahal izango da, eta 20 puntu lortzen ez dituztenak kanporatuta geratuko dira.

Merituen ebaluaketari dagokionez, deialdiaren oinarrien arabera, gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira

Elkarrizketa pertsonalak azaroaren 14an egin ziren modu presentzialean Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan.

Elkarrizketetan lortutako behin-behineko emaitzak hurrengoak izan dira:

Erregistro zenbakia	Guztira
CN-40593081	30,70
CN-25574911	29,83

Beraz, elkarrizketa pertsonala gainditu dituzten behin-behineko hautagaien zerrenda hau da (puntuazioaren arabera ordenatuta):

Erregistro zenbakia	Guztira
CN-40593081	30,70
CN-25574911	29,83



Elkarizketak amaitu ondoren, eta merituak ebaluatuta, Epaimahaiak prozesuaren etapa guztiak GAINDITU dituzten hautagaien behin-behineko lehentasun-ordena prestatu du, faseen balorazioen batuketaren puntuaketa altuena erreferentziazat hartuz. Horrela, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzako Idazkari/Administrazio - laguntzaile lan-postua betetzeko hautagaien behin-behineko zerrenda hau da:

<b>Erregistro zenbakia</b>	<b>Ezagutza Proba</b>	<b>Elkarizketa Pertsonala</b>	<b>Merituak</b>	<b>Guztira</b>
CN- 25574911	25,05	29,83	24,00	78,88
CN-40593081	27,90	30,70	6,00	64,60

Erreklamazioak egiteko 5 egun naturaleko epea hasten da honela.

New Yorkeko hirian, 2022ko azaroaren 16an.

Unai Telleria  
Ordezkarria

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza  
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Nerea Arrieta  
Arduradun Instituzionala  
Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza  
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkaria